

## **BARNE DEIALDIA: “ZERBITZU ETA PLANIFIKAZIOKO ADMINISTRARIA”**

Lanpostua: Zerbitzu eta planifikazioko administraria.

Maila: Udalhitzeko 10,5. maila.

Ordutegia: Administraziokoa.

Kontratua: Deialdi hau gainditzen duen pertsonak aldi baterako kontratu bat badu, kontratu hori ezingo da epemugarik gabeko kontratu bihurtu indarreko legeriak baimendu arte.

### Zereginak:

- Gidarien eguneroko izendapena egitea.
- Gidari-kobratzaileen txanda aldaketa, baimen, atsedenaldi, oporraldi, gaixotasun, baimen sindikal, eta bestelakoak kontrolatzea.
- Zerbitzu jakin batzuk betetzeko beharrezkoa diren pertsonen buruzko kalkuluak egitea.
- Konpainiako gidari-kobratzaileen gidabaimenen indarraldia zaintzea.
- Pertsonen Departamentuari eguneroko lanei buruzko datuak ematea hark nominak egin ditzan.
- Pertsonen Departamentuak eskatzen dizkion adierazleak egitea.
- Izendapenen aplikazioaren hornitzaileari gorabeheren berri ematea.
- Lanpostuaren kualifikazioarekin bat datozen eta aurrekoaz aparte agintzen zaizkion beste lan batzuk egitea.

Deialdian parte hartu ahal izango dute DTK-ko langileen artetik gutxienez hiru urteko antzinatasuna eduki eta honako baldintza hauek betetzen dituztenek:

Honakoak dira hautagai aurkezteko baldintzak:

- Gutxienerako titulazioa, lanpostuarekin lotura duen Lanbide Heziketako goi mailako teknikaria, teknikari aditua edo administrari lanpostuarekin lotura duen titulazio baliokidea.
- Aldez aurretik gidari-kobratzaile lanpostuan 3 urteko esperientzia izatea.
- Informatikako ezagutzak, erabilizaile mailakoak baino goragokoak (Word, Excel, Outlook menperatzea).
- Taldean lan egiteko gai izatea.

- Erantzukizuna.
- Komunikatzeko gaitasuna.
- Ekimena izatea.

Interesatuta dauden langileek DTK-ko Pertsonal Departamentuan aurkeztu beharko dute beren Curriculum Vitae. **Hautagaitzak aurkezteko azken eguna 2014ko abenduaren 19a izango da.**

Hautaketarako prozesuak honako azterketa hauek izango ditu:

- Proba profesional teorikoa.
- Proba psikoteknikoa eta nortasunekoa.
- Euskara proba, bakarrik euskara titulaziorik aurkezten ez duten pertsonentzat.
- Elkarrizketa pertsonala.
- Medikuzko azterketa.

Merezimenduen balorazioa ere egongo da, eta bertan honakoak hartuko dira kontuan:

- Lan administratiboetan edo antzekoetan esperientzia izatea (7,5 puntu, guztira: horietatik 1,5 puntu esperientzia urte bakoitzeko).
- Euskara ezagutzak (7,5 puntu, guztira: 3 puntu 1.HE; 5 puntu, 2.HE eta 7,5 puntu 2. HE baino maila goragokoa). Euskara titulaziorik aurkezten ez duten pertsonen euskara azterketa bat egin beharko dute.

**EGIN BEHARREKO AZTERKETAK ETA HAIEN BALORAZIOA**

<i>AZTERTUTAKO FAKTOREA</i>	<i>Puntuak</i>
<b>1. FASEA</b>	
1. PROBA PROFESIONAL TEORIKOA (Gutx.9)	15
2. PROBA PSIKOTEKNIKOA ETA NORTASUNEKOA (Gutx. 21)	35
<b>1.FASEAN, GUZTIRA (Gutx. 30)</b>	<b>50</b>
<b>2. FASEA</b>	
1. MEREZIMENDUEN BALORAZIOA	15
<b>3. FASEA</b>	
1. BALORAZIOA ETA ELKARRIZKETA PERTSONALA (Gutx. 20)	35
<b>GUZTIRA (Gutx. 50)</b>	<b>100</b>

1. Deialdi hau gainditzeko behar den gutxienezko nota 50 puntukoa izango da.
2. Proba profesional teorikoan lanpostuari dagozkion kasuak eta ariketa praktikoak sartuko lirateke, Hitzarmen Kolektiboa menperatzen dela erakusteko.
3. Hautaketa Batzordearen esku geratuko da egun berean ariketa bat baino gehiago egin ala ez, bai eta ariketen hurrenkera aldatzeko eskubidea ere.
4. Barne promozioko prozesua pertsona batek baino gehiagok gainditzen badute, gainerakoak itxaron zerrenda geratuko lirateke bi urtez, beste 2 urte gehiagoz luzatzeko aukerarekin, behin betiko emaitzak argitaratzen den unetik aurrera.
5. Barne promozioko prozesu hau esleitu gabe gelditzen bada, kanpo deialdi publikoko prozesu bat jarriko da abian.

## **INFORMATIKAKO EZAGUTZAK**

Eskainitako plaza eskuratzeko beharrezkoa izango da informatikako ezagutza maila jakin bat egiaztatzea, Informazioaren Gizarteko Euskadi Planak KZGunea zentro publikoetan zuen eskura jartzen dituen moduluetakoa bartzuk lortzeko proba gaindituta, zehazki honela:

- Microsoft Word 2007 Maila Aurreratua.
- Microsoft Excel 2007 Maila Aurreratua.
- Microsoft Outlook 2003 (euskaraz edo gaztelaniaz).

Modulu horiek gainditu direla egiaztatzeko IT Txartela egiaztapen sistema erabiliko da. Modulu beraren oinarriko bertsioa eta bertsio aurreratua egiaztatzen badira, azkena baino ez da onartuko. Geroagoko bertsio baten aplikazioaren egiaztapenek aurreko bertsioenak baliogabetuko dituzte.

Hiru IT Txartelak balorazioaren eta elkarrizketa pertsonalaren 3. fasea egin baino 24 ordu aurretik egiaztatu beharko dira.

Donostia-San Sebastian, 2014ko Abenduaren 4a